



EBAZPENA, 2017ko abenduaren 11koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2017-2018ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaerak ebazteko 1. proposamena egiten duena.

2017ko ekainaren 28ko aginduaren bidez (2017ko ekainaren 30eko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2017-2018ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2017ko ekainaren 28ko aginduak 35. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu diren hautespen-epaimahaiek banaka aztertu dituzte ebazpen honen I. eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.- Deialdi hori ebazteko lehenengo proposamenaren berri ematea 2017-2018ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean eskaerak, beka emateko edo ez emateko proposamenarekin batera, zerrendatzen dira. Proposamenak zehatz kontsultatzeko, eskatzaileek beren espedienteak Eusko Jaurlaritzaren beka-aplikazioan kontsultatu beharko dituzte.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 11a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

MIREN ARTARAZ MIÑÓN